



**Arartekoaren 2023R-1721-2022 Ebazpena, 2023ko martxoaren 17koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari gomendatzen zaio ezezta dezala bide-segurtasuneko araudia hausteagatik ezarritako zehapen administratibo bat, eta azter dezala ertzainek egindako atxiloketa ebazpen honetan adierazten diren parametroen arabera.**

### Aurrekariak

1. Kexagileak eskatu zuen Arartekoak esku hartzeko argitzeko nola jardun zuen Ertzaintzaren patruilak bidean gelditu zuenean trafiko eta bide-segurtasuneko arau-haustea egiteagatik.
2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ostean, Arartekoak Segurtasun Sailera jo zuen gaiari buruzko informazioa eman ziezaion.

Halaber, zehapen-espedientearen dokumentazioaren kopia ere eskatu zuen, bai eta polizia-atestatuarena eta Ertzaintzak gelditu zutenetik epailearen esku utzi arte egin zituen gainerako jarduketan kopia ere.

Emandako epealdian erantzunik jaso ez zuenez, Arartekoak berriro eskatu zion Segurtasun Sailari aurrekoan eskatutako informazioa bidaltzeko.

Errekerimendu horren ondoren Segurtasun Sailak informazioa bidali zion Arartekoari; bertan honako hau azaltzen da:

- a. Ertzaintzaren patruila batek kexagilea gelditu zuen; izan ere, kexagilearen ibilgailua kontrako erreian sartu zen, eta ertzainek maniobra zakarra egin behar izan zuten haren kontra ez jotzeko.
- b. *"Dña. XXX es invitada a someterse a la prueba de detección del grado de impregnación alcohólica orientativa, dando positivo. Ante los evidentes síntomas de embriaguez observados tanto en el estado psicofísico de la conductora cuyas facultades de atención estaban mermadas, como en la forma de conducción anómala e irregular, se adopta, la decisión de proceder a la detención de la persona a las 07:35 horas por un posible delito contra la seguridad vial, siendo ésta informada puntualmente de sus derechos, así como del motivo de la detención. A continuación, es trasladada a la Ertzaintzea de Muskiz para poder realizar la prueba de detección de alcohol con un etilómetro oficialmente autorizado mediante los dos ciclos de medida, según establece la normativa de tráfico, especialmente los artículos 22, 23 y 24 del Reglamento General de Circulación, arrojando la primera prueba un resultado de 0,43 mg/l y la segunda prueba 0,41 mg/l.*



*Cabe destacar que según lo recogido en el artículo 379.2 del Código Penal, que establece el tipo penal de la conducción bajo la influencia de drogas y alcohol, subsiste la comisión del mismo delito si se aprecia influencia del alcohol en el conductor con independencia de la tasa arrojada en las pruebas de detección de alcohol. Es por ello que, a pesar de que la tasa detectada mediante las pruebas constituiría una infracción administrativa, recibió el tratamiento encuadrado en la tipología delictiva encauzada por la vía penal, debido a las circunstancias concretas del caso en el que se aprecia una conducción errática, poniendo xxxx en peligro no sólo su propia seguridad, sino también la del resto de usuarios de la vía. Así, la detención por el P. D. Contra la Seguridad Vial es adecuada, conforme a derecho y es practicada en el marco de la legalidad vigente”.*

*Asimismo, se indica que “en calidad de detenida en dependencias policiales, recibió un trato acorde con la normativa aplicable, respetando fielmente sus derechos y adoptando las medidas legalmente establecidas para todas las detenciones, quedando todo ello recogido en la actuación policial abierta al efecto”.*

- c. Jarduketa polizial haren ondorioz bi salaketa administratibo aurkeztu ziren gidariaren kontra bide-segurtasuneko araudia hausteagatik:

*Lehenengo salaketa administratiboa alkohol-tasa positiboarekin gidatzeagatik aurkeztu zen (tasa hori arauzko probek agertarazi zuten). Segurtasun Sailak honako hau adierazi du: “Esta denuncia no fue entregada a la conductora ya que, al abrirse diligencias judiciales, el proceder habitual consiste en incluir copia de la misma en el atestado que se remite al Juzgado acompañada de una diligencia en la que se solicita al juez que, si el proceso penal no produjera una sentencia condenatoria, se informe a la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco para que, de entenderse oportuno, prosiguiera la vía sancionadora en el ámbito administrativo”.*

*Bigarren salaketan honako hau salatzen zen: “la maniobra realizada con el vehículo, ocupando el carril contrario y poniendo en riesgo concreto a otros usuarios de la vía. Esta infracción lleva aparejada, según la Ley de Seguridad Vial, una sanción de 500€ (con un 50% de descuento si se abona antes de 20 días) y la consiguiente pérdida de 6 puntos en el carnet de conducir. La conductora insiste en abonar cuanto antes esta sanción y por eso se le ofrece la posibilidad de hacerlo en ese mismo momento en sede policial, procediéndose al pago de la misma. Sin embargo, la interposición de esta segunda denuncia pudiera no entenderse del todo correcta. Es práctica habitual de las Unidades de Tráfico de la Ertzaintza, y en sede judicial cuando se están enjuiciando delitos contra la Seguridad Vial, que las infracciones al*



*Reglamento General de Circulación producidas por una conducción bajo la influencia de bebidas alcohólicas o sustancias estupefacientes se entiendan subsumidas en el propio tipo penal. Es decir, no serían infracciones añadidas a la conducción en condiciones físicas no aptas sino consecuencia directa de ello. Por lo tanto, hubiera sido una manera más correcta de proceder la inclusión de esta segunda denuncia en el atestado sin entregar copia de la misma a la conductora, de tal forma que el Juzgado decidiera si esa conducta se encontraba englobada dentro de la conducción etílica o si procedía su tramitación como infracción administrativa".*

- d. Kexagilea askatu arte egindako izapideak direla-eta, txostenak honako hau dio:

*"En base a la legalidad vigente, la detención no podrá durar más del tiempo estrictamente necesario para la realización de las averiguaciones tendentes al esclarecimiento de los hechos y, en todo caso, en el plazo máximo de 72 horas, el detenido deberá ser puesto en libertad o a disposición judicial.*

*En el caso de Dña.xxx, según consta en la base de datos de la Ertzaintza, la detención se produjo a las 07:35 horas procediendo a continuación al traslado de la persona a la Ertzain-etxea de Muskiz para la realización de las diligencias oportunas y la confección del atestado por P. D. contra la Seguridad Vial. Una vez realizadas todas estas gestiones, a las 11:15 horas se procede al traslado al Juzgado de Barakaldo para la puesta a disposición judicial, ya que se había concertado cita con este Juzgado para la celebración de Juicio Rápido, cuya sentencia es aportada en el escrito presentado por Dña. xxx. Finalmente, a las 13:40 finaliza la actuación por la puesta en libertad de la persona encausada.*

*Todo ello, encaja en tiempo y forma en lo recogido en la normativa vigente siendo el desarrollo de la actuación ajustado a derecho, así como al proceso de calidad en la detención, el cual conlleva pautas de revisión y validación por los diferentes agentes intervinientes y sus responsables."*

Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1. Erreklamazioaren oinarriaren harira, lehenbizi Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 3/1985 Legea aipatu behar da, 13. artikuluan ezartzen baitu Arartekoak ezin duela azterketa indibidualik egin ebazpen judizialaren zain





dauden edo ebazpen judiziala eman zaien kexei buruz. Nolanahi ere, ezarritako zehapen administratiboa aztertu daiteke Kode Zibilaren 379.2 artikularen eta zehapenaren baldintzen arabera.

Kode Zibilaren 379.2 artikuluan honako hau ezartzen da: *“Con las mismas penas será castigado el que condujere un vehículo de motor o ciclomotor bajo la influencia de drogas tóxicas, estupefacientes, sustancias psicotrópicas o de bebidas alcohólicas. En todo caso será condenado con dichas penas el que condujere con una tasa de alcohol en aire espirado superior a 0,60 miligramos por litro o con una tasa de alcohol en sangre superior a 1,2 gramos por litro”*.

Artikulu horren lehen puntua epaitegietan aztertu da, eta ebatzi dute ohiko jokabidea dela motordun ibilgailua edo ziklomotorra gidatzea edari alkoholaren eraginpean, eta, arau-haustea gertatzeko, ezinbestekoa dela edandako alkoholak ezberrik gabe kalte egitea gidariaren borondateari eta gaitasun kognitiboari, eta, beraz, erabateko eragina edukitzea gidatzeko moduan. Beraz, ez da nahikoa edari alkoholaren bat edan izana; aitzitik, gidariaren jokabidea trafiko-segurtasunerako arriskutsutzat jotzeko, frogatu behar da alkoholak eragina gidatzeko moduan.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak, alkohola edatearen faseez eta ondorioez behin eta berriz ezarritako jurisprudentziako doktrina oinarritzat hartuta (Auzitegi Gorena: 1133/2001 epaia, ekainaren 11koa, eta 1989ko otsailaren 22koa), 2006ko uztailaren 3ko 3/2006 Jarraibidean<sup>1</sup> ezarri du hizpide duguna bezalako kasuetan (alkoholemia 0,40 eta 0,60 mg alkohol bitartean botatako litro arnasako) salaketa inguruabarren araberkoa izango dela: gidariak mozkor-zantzurik edukitzea, gidatzeko modua arriskutsua edo zaborra izatea, edo istripua eragitea. Beraz, alkohola edan izana detektatzeko legezko probekin batera edandakoak gidatzeko moduan daukan eragina daukala frogatzen duten beste gauza batzuk aztertu behar dira, esaterako gidatzean agerian gelditzen diren jokabideak: gaizki, ero modura edo sigi-sagan gidatzea, istripua eragitea, eta abar.

Alkoholaren kontsumoa dela-eta, arau-hauste administratiboa da ibilgailua gidatzea Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrek 20. artikuluan ezartzen duenetik gorako alkohol-tasarekin (Erregelamenduko tasak Zigor Kodekoak baino baxuagoak dira). Horrenbestez, aski da egiaztatzea gidariaren alkohol-tasa (odolean edo arnasan) hortik gorakoa dela zehapen administratiboa ezartzeko, beste egiaztapenik egin gabe. Nolanahi ere, ezinbestekoa da alkohola detektatzeko proba egitea erregelamendu horrek ezartzen duen bezala.

---

<sup>1</sup> 3/2006 Jarraibidea, 2006ko uztailaren 3koa, fiskaltzak motordun ibilgailuen zirkulazioaren inguruko legez kontrako gertakari penalen aurrean jarduteko irizpideei buruzkoa. [https://www.fiscal.es/memorias/estudio2016/PDF/INS/INS\\_03\\_2006.pdf](https://www.fiscal.es/memorias/estudio2016/PDF/INS/INS_03_2006.pdf)

2. Segurtasun Sailak adierazi duenez, ertzain jarduleek interesduna salatu zuten ibilgailua honetara gidatzeagatik: *“ocupando el carril contrario y poniendo en riesgo concreto a otros usuarios de la vía”*. Zehapena ertzain-etxean ordaindu zuen. Hala ere, Segurtasun Sailak azaldu duenez, interesduna Zigor Kodearen 379.2 artikuluan tipifikatutako jokabide batengatik atxilotu zuten, honako honengatik, hain zuzen ere, eman zuen erantzunaren arabera: noraezean gidatzeagatik, arriskuan jartzen zuela bere segurtasuna eta errepidetik zebiltzan gainerako gidari guztiena.

Jokabide horrengatik instrukzioko epaitegiak Zigor Kodearen 379.2 artikuluko bide-segurtasunaren kontrako delitua egiteagatik kondenatu zuen, gizartearentzat lan egiteko zigorra ezarri zion, eta aldi batez motordun ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kendu zion.

Horretaz hauxe adierazi du Segurtasun Sailak bere erantzunean: *“las infracciones al Reglamento General de Circulación producidas por una conducción bajo la influencia de bebidas alcohólica o sustancias estupefacientes se entienden subsumidas en el propio tipo penal. Es decir, no serían infracciones añadidas a la conducción en condiciones físicas no aptas sino consecuencia directa de ello”*.

Horrenbestez, ez da egoera fisiko eta psikiko desegokietan gidatzeari gehitutako arau-haustea, baizik eta horren zuzeneko ondorioa, eta horregatik tipo penal berean dago eta prozedura judizialean alkohola etilometroarekin detektatzeko probarekin batera aztertu behar da.

Beraz, interesdunari bi zehapen ezarri zaizkio (bata administratiboa eta bestea penala), eta bi zehapenetan subjektua, egitateak eta oinarriak berak dira, eta bera da bietan babesten den ondasun juridikoa, jokabide beragatik ezarri baita zehapena, hots, zirkulazioa arriskuan jartzeagatik.

Beraz, “non bis in idem” printzipioa hautsi da; izan ere, Konstituzio Auzitegiak urtarrilaren 16ko 2/2003 epaian ezartzen duen bezala: *“Se trata de un caso en el que el delito absorbe el total contenido de ilicitud de la infracción administrativa, pues el delito añade a dicho elemento común el riesgo para los bienes jurídicos vida e integridad física, inherente a la conducción realizada por una persona con sus facultades psico-físicas disminuidas, debido a la efectiva influencia del alcohol ingerido”*.

Zigor jurisdikzionalaren lehentasuna jurisdikzio administratiboaren aldean, “non bis in idem” printzipioa ez hausteko, 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 85. artikuluan ere ezartzen da (6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duena):

*“1.-Cuando en un procedimiento sancionador se ponga de manifiesto un hecho que ofrezca indicios de delito perseguible de oficio, la autoridad administrativa lo pondrá en conocimiento del Ministerio Fiscal, por si procede el ejercicio de la acción penal, y acordará la suspensión de las actuaciones. En todo caso, cuando se produzca un accidente de tráfico con resultado de lesión o muerte, la autoridad administrativa lo pondrá en conocimiento de la autoridad judicial, acompañando la comunicación del oportuno atestado.*

*2. Concluido el proceso penal con sentencia condenatoria, se archivará el procedimiento sancionador sin declaración de responsabilidad.*

*3. Si la sentencia es absolutoria o el procedimiento penal finaliza con otra resolución que le ponga fin sin declaración de responsabilidad, y siempre que la misma no esté fundada en la inexistencia del hecho, se podrá iniciar o continuar el procedimiento sancionador contra quien no haya sido condenado en vía penal”.*

Sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 31.1 artikuluan ere printzipio hori aipatzen da: *“Ezingo dira zehatu zehapen penala edo administratiboa jaso duten egitateak, subjektua, gertakaria eta funtsa berberak direla ikusten den kasuetan.”*

Lehen esan den bezala, prozedura administratiboa ez zen eten, eta interesdunari zehapena ezarri zitzaion. Beraz, subjektu, egitate eta oinarri berak dauzkan zigor-epai irmoa dagoenez, zehapen administratiboa ezartzeko egintza ondoriorik gabe utzi behar da, eta ordaindutako isuna eta kendutako puntuak itzuli behar dira.

3. Kexagileak bere idazkian azaltzen du estuasunez eraman zuela atxiloketaren prozesua, zehapen administratiboa ordainduta zuelako eta uste zuelako dena argituko zela bide administratiboan.

Gainera, honako hau adierazten du: *“el procedimiento normal para este tipo de delitos es la no detención, aunque sea ésta una medida legal. La práctica habitual, aún una vez iniciada la vía penal, sería haberme citado para la celebración de un juicio rápido y hubiera valido con que me hubiesen citado para acudir al Juzgado en calidad de investigada, mostrada mi total colaboración y no tener que haber pasado por el estresante proceso de haber sido detenida”.*

Segurtasun Sailera bidalitako informazio-eskaeran interesdunak jarduketa polizialaz adierazitako gogoetak biltzen ziren. Haren bertsoaren arabera, zehapena ordaindu ondoren erabakia aldatu zen, eta ondorioz atxilotu egin zuten eta ziegetara eraman zuten, epailearen aurrera eraman arte itxaroteko.



Horri erantzunez, Segurtasun Sailak bere txostenean zehazten du zer gertatu zen Ertzaintzaren patruilak goizeko 07:35ean gelditu zuenetik, alkohol-maila orientatiboa detektatzeko proba egin ondoren, epailearen aurrera eraman arte, eta honela amaitzen du azalpena: *“encaja en tiempo y forma en lo recogido en la normativa vigente siendo el desarrollo de la actuación ajustado a derecho, así como al proceso de calidad en la detención, el cual conlleva pautas de revisión y validación por los diferentes agentes intervinientes y sus responsables”*. Hala ere, ez du bidali zehapen-espediterearen dokumentazioa, ez polizia-atestatua, ez eta Ertzaintzak gelditu zutenetik epailearen esku utzi arte egin zituen gainerako jarduketaren dokumentazioa ere. Horiek bidali beharrean gonbita luzatu dio Arartekoari Ertzaintzaren lokaletara joateko eta dokumentu horiek aztertu eta egiaztatzeko.

Beste batzuetan adierazi izan dugun bezala, Arartekoaren eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun osatugabeak ematea oztopo handiak dira legez esleitutako eginkizunak behar bezala bete ahal izateko, eta asko murrizten dituzte erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak —ordenamendu juridikoak herritarrek beren eskubideak defenda ditzaten ezarritako tresnetako bat da Arartekoa—.

Beraz, Arartekoaren ustez ez dago arrazoirik Segurtasun Sailak erakunde honi eskatutako dokumentazioa eta informazioa ez bidaltzeko, legez egin behar duen bezala, eta horrela erakunde honi bere ardurapean jarritako jarduketa baloratu ahal izateko behar duen funtsezko iritzi-elementu bat ukatzeko.

Hala ere, kexaren atal hau dela-eta, lehenbizi gogora ekarri behar da atxiloketaren kautelazko neurria aplikatzen den objektu materiala askatasunerako eskubidea dela, Espainiako Konstituzioaren 17. artikuluan ezartzen dena. Horregatik, funtsezko eskubide bati eragiten dionez gero, atxiloketan proportzionaltasunaren printzipioa bete behar da, eta lortu nahi den xedera egokitu behar da (Auzitegi Gorenaren 1993ko urriaren 16ko epaia, eta Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babesteko Europako Hitzarmenaren 18. artikulua).

Beste alde batetik, atxiloketa legez ezarritako aukera bada ere, kontuan eduki behar da trafiko-segurtasunaren kontrako delitua izan zela eta prozesu judizial azkarraren bidez epaitu daitekeela, *“betiere zigor-prozesua polizia-atestatuaren bidez hasi denean, eta polizia judizialak norbait atxilotu eta guardiako epaitegiaren esku jarri duenean, edo, inor atxilotu gabe, norbaiti guardiako epaitegira bertaratzeko zitazioa egin dionean, polizia-atestatuan salatu giza agertzeagatik”* (Prozedura Kriminalaren Legea, 795.1 artikulua).

Hain zuzen ere, Legeak polizia agentearen esku uzten du pertsona atxilotzeko edo ez atxilotzeko erabakia, eta horretarako proportzionaltasunaren printzipioa aplikatu





behar du, askatasunerako eskubidearen eta askatasuna murriztu beharraren arteko oreka mantentzeko, eta erabakiaren arrazoia azaldu behar du atestatuan.

Izan ere, hara zer dioen Segurtasun Sailak bere erantzunean: *“Aurreneurritzko atxiloketak ezin izango du egitateak argitzeko ikerketek zenbat denbora iraun eta hori baino gehiago. Lege honetan ezarritako epeetan, eta, edozein kasutan ere, hirurogeita hamabi orduko gehieneko epean, atxilotua aske utzi edo agintari judizialaren esku jarri beharko da. Atestatuan adierazi behar da atxiloketa non eta zer ordutan gertatu den, eta atxilotua non eta zer ordutan utzi den agintaritza judizialaren aurrean edo aske.”* (Prozedura Kriminalaren Legea, 520.1 artikulua, Konstituzioaren 17.2 artikuluekin lotuta).

Ondorioz, Legean ezarritakoa bi modutara hautsi ahal da: atxiloketak hirurogeita hamabi ordu baino luzeago irauten badu edo, bestela, gehieneko iraunaldia ez gainditu arren, atxiloketa beharrezkoa ez bada, zer gertatu den argitzeko ikerketak dagoeneko egin direlako, eta, hala ere, atxilotua askatzen ez bada eta agintari judizialaren esku uzten ez bada (Auzitegi Gorenaren 23/2004 epaia, otsailaren 23koa, 2. oinarri juridikoa).

Horren ildotik, Auzitegi Gorenak honako hau ezartzen du uztailaren 24ko 250/2006 epaian, eztabaidarako lekurik utzi gabe: *“pueden calificarse como privaciones de libertad ilegales, en cuanto indebidamente prolongadas o mantenidas, aquellas que, aún sin rebasar el indicado límite máximo, sobrepasen el tiempo indispensable para realizar las oportunas pesquisas dirigidas al esclarecimiento del hecho delictivo que se imputa al detenido, pues en tal caso opera una restricción del derecho fundamental a la libertad personal que la norma constitucional no consiente”* (3. oinarri juridikoa).

Aurrean esan den bezala, Arartekoak ez dauka atestatu poliziala, eta beraz ezin du ebatzi neurria proportzionala izan denez, baina administrazioak honako hau adierazten du informazio-eskaerari emandako erantzunean: *“ante los evidentes síntomas de embriaguez observados tanto en el estado psicofísico de la conductora cuyas facultades de atención estaban mermadas, como en la forma de conducción anómala e irregular, se adopta, la decisión de proceder a la detención de la persona a las 07:35 horas por un posible delito contra la seguridad vial, siendo ésta informada puntualmente de sus derechos, así como del motivo de la detención.”*

Gainera, ez da aurkeztu dokumentaziorik Prozedura Kriminalaren Legearen 520.2 artikuluan ezartzen dena bete denez argitzeko (atxilotuari idatziz jakinaraztea, berak erraz ulertzeko moduan, zer egozten zaion eta zergatik kendu zaion askatasuna, eta dauzkan eskubideen berri ematea modu berean), eta interesdunak ez du adierazi halako idazkirik eman ziotenik.







Aldiz, erakunde honek auto judicial bat jaso du, adierazten duena interesduna atxilotu gisa agertu dela epaitegian, eta epai bat ere badauka, adierazten duena frogatuta dagoela agenteek gelditzeko agindu ziotela eta, edari alkoholunak edateak eduki ohi dituenak moduko zantzuak antzeman ondoren, *"fue invitada a someterse a la prueba de detección del grado de impregnación alcohólica orientativa, dado positivo. Practicada a la encausada la prueba de detección del grado de alcoholemia efectuada con etilómetro evidencial de precisión dio un resultado de..."*.

Beste alde batetik, interesdunak adierazten du ertzain-etxera eraman zutela proba egitera, egindako arau-haustearen zehapenaren berri eman ziotela, eta esan ziotela izapide egokiak egin ondoren etxera joango zela. Zehapen administratiboa berehala ordaintzea onartu zuen, eta gero bi pertsonari deitu zien (izenak eman ditu), autoaren bila joan zitezten eta ertzain-etxean bil zezaten. Adierazten du pertsona horiekin egon zela ertzain-etxera heldu zirenean, eta agenteek esan ziotela artean izapideak amaitu gabe zeudela eta ezin zituela sinatu eta etxera joan, eta hamar minutu barru kalean izango zela haiekin. Handik gutxira agente batek galdetu zion ea zertan ari zen sakelako telefonoarekin, eta esan zion atxilotuta zegoela eta dei bat egin zezakeela. Sakelako telefonoa eman zien, eta ziegetara eraman zuten. Esan zioten gero epaitegira eramango zutela.

Horrek guztiak argi uzten du gertatu zenaren bi bertsio desberdin daudela. Kexagileak uste du ertzain-etxera alkohol-proba egitera eraman zutenean ez zegoela atxilotuta, eta gero adierazi ziotela atxilotuta zegoela. Aldiz, kexa eragin duen jarduketa egin zuenak adierazi du kexagilea hasiera-hasieratik atxilotu zutela eta beraren eskubideak azaldu zitzaizkiola.

Erakunde honen iritziz, lehen probaren emaitza positiboa izan zela jakin ondoren beraren borondatez bigarren kontraste-proba egitera ertzain-etxera joatea bidezkoa izan zen, auto polizialean ez baitzeukaten doitasuneko etilometrorik, baina, hala ere, atxiloketa ez zen egin Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 18ko 341/1993 epaian ezartzen denari jarraikiz: *"no se consideran detención, en sentido legal, las privaciones de libertad deambulatoria inherentes a las diligencias de cacheo e identificación de un sospechoso, como tampoco, la diligencia de examen radiológico o los controles de alcoholemia, siempre, claro está, que tales diligencias se practiquen en legal forma, con las debidas cautelas, respetando los principios de necesidad y de proporcionalidad"*.

Dena dela, Arartekoaren ustez zalantzan ipini behar da aparteko neurri horren bidezotasuna, zeren eta aurrean azaldutako guztiak agerian jartzen baitu kexagilea atxilotzeko arrazoi bakarra izan zela bazitekeela bide-segurtasunaren kontrako delitua egin izana. Izan ere, ez da aipatzen delitua ez beste inguruabarrik:





interesdunak dokumentaziorik ez edukitzea, agenteei ez laguntzea, alkoholemiaren ondorioz istripua gertatzea, interesdunak polizia-aurrekariak edukitzea, eta abar. Izan ere, alderdiek adierazi dutena eta epaia kontuan edukita, ondorioztatzen da interesdunak ahal izan zuen guztia lagundu zuela. Hain zuzen ere, berehala ordaindu zuen 07:30etan eman zioten salaketa-orrian zehaztutako trafiko-zehapena, eta ez zuen eragozpenik azaldu ertzain-etxean beste proba bat egiteko. Beraz, ezin zuen ostendu frogarik, eta ez zirudien zitazioa egin ondoren epaitegira ez joateko arriskua zegoenik.

Gainera, lehen azaldu den bezala, gure ordenamendu juridikoak ez du aukerarik ematen pertsona bat atxilotuta edukitzeko poliziaren zaintzapean identifikatzeko, zer gertatu den argitzeko eta gertatutakoaren inguruko efektuak eta frogak biltzeko behar den baino denbora luzeagoan.

Horregatik, "zer gertatu den argitzeko ikerketak" (alkohola detektatzeko proba) amaitu zirenean, beste inguruabarririk ez zegoela ikusirik, interesdunaren atxiloketa Konstituzioan ezarritako kasutik kanpo gelditu zen, nahiz eta kexagilea azkar ipini epailearen esku.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Segurtasun Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### GOMENDIOA

1. Ondoriorik gabe uztea kexagileari zehapena ezarri zion ebazpena, hari bere borondatez ordaindutako diru-kopurua (250 euro) itzultzea, eta behar diren izapideak egitea kendutako 6 puntuak itzultzeko, ez baita bete "non bis in idem" printzipioa.
2. Aztertzea ertzainek kexagilea atxilotzean egindako jarduketa ebazpen honetan adierazten diren parametroen arabera.

